

EJIE, SA-ri APLIKATU BEHARREKO ARAU NAGUSIAK

PRINCIPAL NORMATIVA APLICABLE A E.J.I.E., S.A.

Azpimarratu behar da EJIERi aplikatu beharreko jarraian aipatzen diren arauak ez direla eragiten dioten guztiak; badirela beste batzuk aplikatu beharrekoak, alegia, ezinezkoa baita denak zehatz-mehatz aipatzea baten bat ahazteko arriskurik hartu gabe. Izan ere, jarduera esparruaren arabera, zuzenbidearen arlo desberdinak eta maila desberdinekoak izango lirateke aplikagarriak, Espainiako Konstituziotik hasita, zeinak, besteak beste, EJIEko pertsonen oinarritzko eskubideei erreferentzia egiten dien, Erkidegoko direktibak, eta maila baxuagoko udal-arau eta ordenantzetaraino.

Berriro diogu, jarraian aipatuko ditugun xedapenak ez dira guztiak, hainbat arauen zerrenda bat baino, ez da mugatzailea:

1) Berariazko araei dagokienez, honako hauek aipatu behar dira:

- Otsailaren 1eko 60/1982 Dekretua, EJIE sortzea ezartzen duena "Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A." izenpean.
- Euskal Autonomia Erkideko Administrazioa eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen arteko harremanak ezartzen dituen araua otsailaren 18ko 35/1997 Dekretua da; Gerora, maiatzaren 6ko 94/2009 Dekretuak aldatu egin zuen.
- Sozietatearen Estatutuak otsailaren 3ko 20/2009, Dekretuan jasota daude.

Ha de señalarse que la normativa que se indica a continuación como aplicable a EJIE, lo es a título meramente enunciativo, no limitativo, al ser prácticamente imposible hacer una relación exhaustiva de las normas aplicables a EJIE, sin riesgo de omisión; dado que dependiendo del ámbito de actividad serían aplicables distintas ramas del Derecho, y de distinto rango, desde la Constitución española en lo que se refiere, entre otros a los derechos fundamentales de las personas que forman parte de EJIE, las Directivas comunitarias, hasta las órdenes y ordenanzas municipales de rango menor.

Insistimos que únicamente a título enunciativo, no limitativo, podemos señalar las siguientes disposiciones:

1) Como normativa específica, debe señalarse la siguiente:

- Decreto 60/1982 de 1 de Febrero, en el que se establece la constitución de EJIE bajo la denominación de "Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A.",
- las relaciones entre la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Sociedad Pública EJIE, S.A., están establecidas por el Decreto 35/1997, de 18 de febrero, y modificado por el Decreto 94/2009, de 6 de mayo, y
- los Estatutos de la sociedad están recogidos en el Decreto 20/2009, de 3 de febrero.

2) Bigarrenik, EJIE, merkataritzako sozietate anonimo gisa, sozietate mota hau eraentzen duten zuzenbide pribatuko arau aplikagarriek zuzentzen dute. Beraz, haren jarduera lotuta dago merkataritza sozietate eta sozietate anonimoentzako lege aplikagarriei.

3) Halaber, nabarmendu behar dugu EJIE Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publikoa dela eta, beraz, Sektore Publikoaren parte da. Hori dela eta, estatuko zein erkidegoko sozietate publikoentzako lege aplikagarriei lotuta dago. Honako hauek dira, kontratazio jarduerari eragiten diolako, aipatu beharreko arauak:

Estatuko legeria

- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen testu bategina onartu zuena (2018/03/08ra arte).
- Azaroaren 8ko Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legea. Lege horren bidez Espainiako ordenamendu juridikoak bere egiten ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren honako Direktiba hauek: 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE (2018/03/09tik aurrera).

EAEko berezko araudia

- Apirilaren 7ko 3/2016 Legea, klausula sozial jakin batzuk kontratazio publikoan sartzeko.
- Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio erregimenari buruzkoa.
- Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartzen duena.
- Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ondarearen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- Urte bakoitzeko Euskadiko Aurrekon-tuen Legea.

2) En segundo lugar, EJIE, como sociedad anónima mercantil, se rige por las normas de derecho privado aplicables a este tipo de sociedades, estando por tanto sujeta en su actividad a la legislación de aplicación a las sociedades mercantiles en general, y a las sociedades anónimas en particular.

3) Además, debemos señalar que EJIE, al ser una sociedad pública dependiente del Gobierno Vasco, y por tanto formar parte del Sector Público, está sujeta a la legislación estatal y autonómica aplicable a las sociedades públicas, considerando que básicamente deben citarse la siguiente normativa, en cuanto que afecta a su actividad de contratación:

Legislación estatal

- Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (hasta 08/03/2018), y
- Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (a partir de 09/03/2018).

Normativa propia de la CAPV

- Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública,
- Decreto 116/2016, de 27 de julio, sobre el régimen de la contratación del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi,
- Decreto Legislativo 1/1997 de 11 de noviembre por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco,
- Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi y
- Ley de presupuestos del País vasco de cada año.

4) Halaber, sozietatearen jardueran duten garrantziagatik, honako hauek aipatu behar dira:

- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa,
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.
- 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa, garatzeko erregelamendua onartzen duena,
- 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (2018/05/25etik aurrera),
- 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 24koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.

4) Igualmente han de citarse, dada su importancia en la actividad de la sociedad, las siguientes:

- Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno,
- Ley Orgánica 3/2018 de 5 diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales
- Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal,
- Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de éstos (a partir de 25/05/2018),
- Real Decreto Legislativo 1/1995 de 24 de marzo por el que se aprueba el texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores, y
- Ley 31/1995 de 8 de noviembre de Prevención de Riesgos Laborales.